



**2017KO URTARRILAREN 31KO  
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko urtarrilaren hogeita hamaikan, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Begoña Bueno Barranco, Iñaki Estensoro Sarasola, Amagoia Naldaiz Mingo, Jabier Arrasate Aierbe, Azeari Andonegi Beristain, Ioseba Hernandez Madinabeitia, Marian Zufiria Apeztegia, Imanol Aran Barandiaran, Leire Mendia Arana eta Urtzi Iruin Arruti.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2016ko abenduaren 20an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.


Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

**III.- C.A.F.EKO URBANIZAZIO LANEN LIKIDAZIOA.-**

C.A.F.eko urbanizazio lanen obra zuzendaritza daramaten Pedro Izaskun arkitektoa eta Javier Santos arkitekto teknikoak lanen 5. obra-egiaztagiria, obren likidazioa dena, luzatu dute. Bosgarren obra-egiaztagiri honen zenbatekoa HAMAR MILA LAUREHUN ETA LAUROGEITA HAMABOST EURO ETA LAUROGEI ZENTIMOtakoa (10.495,80 €) gehi BEZari dagokion BI MILA BERREHUN ETA LAU EURO ETA HAMAIIKA ZENTIMOtakoa (2.204,11 €) da, hau da, guztira HAMABI MILA SEIEHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI EURO ETA LAUROGEITA HAMAIIKA ZENTIMO (12.699,91 €). Lan hauek Construcciones Iturrioz, S.A. enpresak burutu ditu.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri eta likidazioa den hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Hau honela, eta hirigintza, ingurugiroa, obra eta zerbitzuen batzordearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aho batez, C.A.F.eko urbanizazio lanen likidazioa den bosgarren obra-egiaztagiri hau onartzea erabakitzen du.



#### IV.- GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN ESTATUTUEN ALDAKETA.-

Gipuzkoako Ur Kontsortzioak bere estatutuak aldatu zituen, hasierako izaeraz, 2016ko urriaren 27an egindako batzar nagusian. Estatutuen aldaketa hau abenduaren 27ko 27/2013 Legeak, Toki Administrazioaren Arrazionalizazioa eta Jasangarritasunari buruzkoak, ezarritako hainbat betebeharrak erabazteko egiten da.

Hau honela, planteatzen den aldaketa egin ondoren, estatutuen 3. artikulua honela geldituko litzake:

#### **"3. artikulua Nortasuna eta gaitasun juridikoa**

*1.- Kontsortzioak nortasun juridiko propioa du eta bere helburuak lortzeko jarduteko gaitasun osoa.*

*2.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 120 artikuluan ezarritakoaren xedeetarako, Kontsortzioa Gipuzkoako Foru Aldundiari atxekita geratzen da. Foru araudiak atxikipen horren edukia eta norainokoa zehaztuko du."*

Estatutuen aldaketa hau behin betikoz onar dadin, beharrezkoa da halaber Ur Kontsortzioa osatzen duten udalek, osoko bilkuraren akordio bidez, aldaketa hau onar dezaten.

Hau honela izanda eta bai hirigintza, ingurugiroa, obra eta zerbitzuen batzordean bai udal gobernantza batzordean informatua izanik, udal osoko bilkurak, aho batez, eta beraz legezko gehiengo osoaren aldekoen botoekin, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren estatutuen aldaketa hau onartzea erabakitzen du.

#### V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta lau direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudarik.



LAZKAOKO  
UDALA